

HERRIAK ETA GIZONAK

EUROPA-REN ETORKIZUNAREN IKUSPIDEA ALKARTASUNAREN ALDE BEGIRATUZ

Giza-jendearen kondairan lenego aldi da zibilizazio bat mundu guzian gaindu dana: sarkaldeko zibilizazioa. Aintziñako zibilizazio aiek, mesopotamia, egipto, sorkalde ta abar, denak erori ziran egoki azi ta loretu ondorean. Zuzen edo deszuzenki, Europak jaso zuan beren gandik zenbait ondore, zalanarik ez dago, baiña uskerizko txerto ori europarrak aunditu ta gettu zuten aburu analitiko, oraingo zientzia ta teknika berriak oinarritzeko, gizonak gauzak bere mendete dominatzerara arte.

Aintziñako denboretan Grezia buru izan bazan ere, bere gainberatasunean aildatu zan Europako zibilizazio zurarren emaitza Erromara, Erromako Inperio arek zabaldu zuan Europako erri guzietara, ordurarteko erresuma estua etenez. Erroma ere erori zan, baiña bere gogoaren ke-mena gelditu zan errietan sakabanaturik eta gerotzik alde guzietara zabalduz ari da, Errenazimentuan galfendur arte Europako erri guzian frutu bezela. Denborarekin, zientzia, europarran teori-erraziotaren espirituz, azten joan zan mundu guzian zabalduz. Batez ere azken mendete onetan, teknikan bultzadari esker, baforezko makina eta gerogao elektrizidadea asmatu zanak. Eragin zioten zientzi jakintza eta politiku-ekonomiku iritzi beraiet ere, gerogao eta indar, geiagoz aundituz eta Europako erresuma guzian gainite bezela munduan zabalduz, sinismenak ere aldatze-ara arte.

Ori izan da Europako emaitzen martxa. Ta ez dago du-darik orrekin giza-jendea irabazten atera dana. Batetik bizimodua obetu du eta bestetik gizonaren bizitza luzatu. Jakintzaren aurterapen oiek gabe, bestela, ezin ziteken munduan getituz dihoan jende guzia bizi. Lortu ezinezkoa zezakean zientziaren eutsigarri gabe.

Baiña jakinezkoa da mundua molde berri batzuetara di-joala, eragin oiek bearturik, eta Europa bera ere gerogao eta premina aundiagoan arkitzen dala bere barrukaldean aldatzeko. Len-baitlen federazioz alkatu bearra dute Euro-pako erriak bere zientzia ta teknikan eragin ez orri zati-gon ondore menderatzeko, batez ere prolema ekonomiku-etan. Europa indartzen ez bada, ta indartzeko nai ta nalezkoa du alkatu bearra, denborarekin, Amerika, Erru-sia edo Xina-ren mendeko morroi biurtzera elduko baita.

Gizonak eta erriak alkarrengana anaitasunez urreratu ez-ezik batu bearra dute. Europako nazio guzian artean al-kartasun estu bat lortu arte. Baiña zintzotasunez, boron-date onarekin. Alkarren artean inork inor menderatu ga-be. Aitoritu bear da Europa desberdina dala bere zabale-ran eta izakeran; baiña erri bakoitzaren iaera edo espiri-tuzko dantasuna berdina da. Europari bere izakeraren era-zoia faltatuko zituzion bere askatasunezko erri-multzo ga-be. Orregaitik, erri txiki ta aundi, oron bizi bearrak erres-petatu bear dira kontinentearen esi barnean.

Lenego ere mintzatu nintzan gai ontaz, ikusi Z. AR-GIA-ren 90-en. zenbakian, *Coudenhove-Kalergi, Europako auzitaren aurrez-aurre* (azillak 15, 1964). Ta ez naiz ni euskal idazleetan lenena era bakarra gai orretaz jardun dana. Alpagarrietan, argitara berri dugu Arantzuko

«jakin» taldearen ardurapean Europa izenezko liburua, amar itzaldiren bilduma. Joxe Azurmendi adiskidearen itzaurre bizi bat du, ta beste gauza jakingarri askoren artean dio: «Guk nai dugun Europa ez da indarrak eragin-dakoa izango, gizonak gizon libreentzako tajutua baiño. Ez dugu nai Europa aberats izateko, indartsu izateko, USA ta URSS bi andiekin gu ere andi izateko». Ta aurrera jarraitzen du esanaz: «Errespetoa eskatzen dugu, gizon bezala, erri bezala. Maitasunez eta askatasunez gu gerana agertu ahal izateko errespetoa». Izan ere, Europa, guziok osotzen degu: Europa, guziok gera eta erri txikiak aintzat artu ga-beko Europaren alkartasuna, sasi-alkartasuna litzake, gor-puzt elbarritua.

Erri bakoitzaren etnia aldetikako izakerak errespet-a-garriak dira. Gaurko gizonaren kontzientziak eskatzen du gizon guzientzako begirapena, gizon bakoitzaren aldetik begiratuta eta gizona bere giroko erresuma bakoit-detik begiratuta eta gizona bere giroko erresuma bakoit-zaren aldetik begiratuta. Guziak aintzat arturik, boron-date onezko alkarrea. Ez estatu batzuek nai duten erdi indarrezko alkarre ori, baldin pakerik nai bada. Ta, gu-txiago indarraren bidez lortutako alkarrea.

Indarraren bidez lortu nai izan zuten alkarreak, ge-rarren bidez, bizi geiegi kostatu zain Europari, ta alperri-kakoak izateaz gainera, alkarren arteko gorrotako bizitu dituzte. Erroma, bai Napoleon eta bai Hitler, erori ziran indarrez menderatuz nai zuten alkarre orretan. Zauri as-ko iriki dira eta batzuek oraindik berriak ditugu. Berrie-giak, Adierazi digute erresuma bakoitzaren errespeturik gabe nekez lortu lezakeala batasun on, paketsu eta irau-nkorra. Ta alkarerik gabe, ekonomia zaurituko da, euro-paar bakoitzaren bizi moldeak beeratgotuz gainharako kon-tinenteen maillatik. Itz batean, galduko du bere nortasu-nezko indarra besteen menpeko edo morroitzako biurtu arte. Arriku ori du, eta orregaitik zain Europari alkar-tasunean lotu bearra, interes guzian gainetik eta norberekeri guzian gainetik, soluzio bakar bezela munduan dagokion mailla gorde dedin.

Europako errien alkarre edo batasun ori, ontaz eman-gu genuke zenbait erri beren jatorrizko bereizkuntzak galdu bear badituzte ere. Baiña, bide oberik adierazten ez zaigun bitartean, Europaren alkartasuna Kant, Coudenhove-Kalergi, Briand, Cambó, Stresemann, Schuman eta ki-dekoak esaten zuten erara izan bearko du, erresuma ba-koitzaren etniazko emaitzetan oinarriturik. Ezin da kon-prenitu iru edo lau estatu aundik derrigorrez beartutako alkartasuna; gezurrezko alkartasuna litzake. Europa bera-ren izatea ukatzeko litzake ta bere barneko aserreen biziko litzake betiko larritasunetatik atera ezinik. Ontaz, ez da beste bide zuzenik erresuma bakoitzaren emaitzetan oina-rritutako alkarrea baiño. Guziok gera Europa ta guziogan-dik jokatu bear da Europari begira, ta bere bidez mun-duari.

J. SAN MARTIN

EKONOMIAREN ZORIA ESPANI'N 1966'KO

URTEAREN AURREAN 3 KREDITOAREN MOZTEA?

Buruzpidearen umea aztertzeke batzuk erabiltzen dute zeatzasun onek: Estaduarien aurre-Kontua; Diru erein-dura; Banketekeko ezartze ta kredituak; Nekazari gintza; Lantegi gintza; Kanpoko salerosketa; Saria eta alogerak; Lanbide; Ekonomiaren aldia ta abar; beste batzuek orra-tio; Lantegi gintza; Lanbide; Saltzeak; Diru ta kredi-tuak; Saria eta alogerak eta Kanpoko salerosketa baka-rrik.

Gure aldetik, gaurko lan onetan, erabiliko duguz "In-formacion Comercial Española" n agertu diran zeatzasunak.

Asteroko orrek dio gutxi gora bera: Iritzi batekoa da esatea, egungo espainiar ekonomi aldia ikusi ezker, bar-neko eskutzea gurezka dagoela eskugaitz araus. Au da, espainiar ekonomia "eskutze anditasunak" nekatu duela. Fenomenu onen gertepn berezienak diru:

—Sari mail orokareen eta bizibide gostaren igotzea (geitzeak 11 ta 13 %).

—Ordain Zalantzen uskari aundia.

—Nazioko eralgien geitze indartsua: a) erri-eralgiak 20 % geitze; b) irillezko diru eraltearena 17 % eta c) ixi-llezo sunistize aundia.

Aldi makal onen osakia ezta erreza egikiuzan bigaitik: —eskutze andituak nuspidoa sortzen duela ta naste au kendu egin bear da iraupena iristeko.

—ondore txarrak gizarte-sail batzuen lasaitasunaren-tzat eta onek eragozpenak jarriko dute.

Bear bearrezkoa da orain iraupena iristea ta onela ar-gitasuna lortu prolema jatorrak ikusteko.

Naste orren agerpen bat da saleroski-zalantzearen us-karia (=deficit). Batzuk diote uskari au beartzeko, ekar-tzeak (=importazioak) gutxituz. Baiño or estago igesi-derik, igesipide berezia da gure sariak (=prezioak) bea-rtzea. Baiña beartzea au ezin leike lortu, espainiar lantegiak ezin dute egin bear diran aldukitzok egin eta orduan ekono-mia etsi egin bear da ta kredituak tipitu.

Igaz ordain-zalantzak 255 \$ (milioi) gairidikan (=su-peravit) euki zitun eta aurtan 130 milioi \$, uts (=deficit) arrigaria benetan.

Ona omen lumero batzuk:

Sari mail orokarra (1)		(Oñarrri 1958=100 (2))	
1956	109		
1957	127,2	Urteak	Aldaketa %
1958	139,8		
1959	142,3	1959	107,4 7,4
1960	145,3	1960	109,1 1,7
1961	149,8	1961	111,3 2,0
1962	157,2	1962	117,6 5,7
1963	164,0	1963	127,9 8,8
1964	168,7	1964	136,8 7,0
1965	185,7	1965	154,9 13,2

Erri eralgi (3) Aldaketa %

1956	37,668	25
1957	42,932	14
1958	54,259	26
1959	59,770	10
1960	67,108	12
1961	73,898	10
1962	88,794	20
1963	109,242	23
1964	124,585	14
1965	149,398	20

Diru ereindura (4) Diru eskeintza (5)

Urteak	Aldaketa %	Urteak	Aldaketa %		
1956	55,821	27	1956	143,630	22
1957	66,653	19	1957	167,435	17
1958	72,519	9	1958	191,437	14
1959	74,116	2	1959	201,130	5
1960	78,926	6	1960	203,679	1
1961	88,593	12	1961	232,479	14
1962	103,283	17	1962	275,518	19
1963	119,853	16	1963	317,412	15
1964	141,564	18	1964	377,726	19
1965	149,986	15 (a)	1965	404,166	14 (a)

(a) 1965'ko urtea Azaroko zeatzasunak bakarrak.

(1) Sari Mail Orokarra = Indice General de Precios. (media anual)

(2) Bizibide-Gosta (Oñarrri 1958 = INDICE DEL COS-TE DE VIDA (Base 1958 = 100) (media anual)

(3) Erri-Eralgi = Gasto Público. (Milloi Peseta)

(4) Diru Ereindura = Circulación Monetaria. (Milloi Peseta)

(5) Diru Eskeintza = Oferta Monetaria. (Milloi Peseta)

O y a l s . a .

Oyal eta eforru almazena

Paregabekoak

Bikañenak

GARIBAY, 4 - TELF. 14304

DONOSTIA



ECHABE

ETXABE'REN

Mueble - Etxea

Fuero'en Enparantza

Urrutizkiñak: 841078
841124

ZARAUTZ